



Kaixo, lagunok:

JOSE LUIS de la MATAren heriotzaren/bizitzaren **XIV. URTEURRENA** beteko da otsail honetan. Horren ondare emankorra, horren lan eskerbaren fruituak lagun ditugu gure eguneroko bizitzan: eraiki zuen eskolakoak gara eta berau babeslekutzat dugu; sistematizatu zuen ekoizpen teoriko-praktiko aberatsak modelo iraultzailea gauzatu zuen gure osasunlanbiderako; eguneroko bizitzan eta politikan, harremanak eraiki eta zaintzeko zuen modua erreferentzia etikotzat dugu. Jose Luisek eta, jakina, Teresa Gil Ruizek gure prozesuak sostengatzen eta elikatzen jarraitzen dute, Historiatik gure historia pertsonal eta kolektibora.

Hori dela eta, Jose Luisi gure omenaldia eskaini nahi diogu eta gure eskolarentzat, **IZARGAIN**entzat, hain esanguratsua den data hori gurekin gogoratzeko, Aresoko **ERASONEA-DE LA MATA**ENEAn egingo dugun ekitaldian parte hartzera ere gonbidatu nahi zaituztegu: **otsailaren 23an, igandean, goizeko 11etan.**


2019-20ko ikasturte honetan zehar, [www.joseluisdelamata.com](http://www.joseluisdelamata.com) web-orria aberasten ari da Jose Luisen testuak aztertzeko Donostiako **Izargain-DelaMataren Eskolan** astero garatzen ari garen **www.12.Mintegiarekin.**

Mintegiaren testuinguruan, Jose Luisek, aurten berriro ere, antzerkiaz gozatzera eramango gaitu. Guztion artean, **El placer de matar a una madre** antzeztuko dugu, Marta López Luancesek idatzitako eleberrian oinarritua. Tramak eta dramak gure Eskolaren hastapenera bertara eramango gaituzte.

Ekitaldia bukatu eta gero, mokadu bat hartuko dugu etxean eta, ondoren, **bazkaria** egingo dugu. Eguna dantzan bukatuko dugu **Txapelamelaren** musikarekin eta, agian, beste sorpresa gogorrago batekin... (Bazkarian geratuko zaretenok mezua bidali [ulumago@hotmail.com](mailto:ulumago@hotmail.com) helbidera, **otsailaren 20a baino lehen, mesedez**).

Areson zuen zain gaituzue, etorri!  
Besarkada bero bat.

Izargain-Areso

DE LA MATAENEA  
2020ko otsailan

Teresa Gil Ruiz